



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Karrikiri aldaera

Garai zailak analisi politikoak informazio maila oso apaletik egiten dituen amateurrarentzat. Izan ere, Kongresuko lehengo eguneko zirkua ikusita, analista profesional denek analisiak egitean “zuhurtzia” oso beharrezkoa dela azpimarratzen dute.

Komeni da ez ahaztea PPK egin zuen lan-erreforma baliogabetzea zela Sanchezen inbestiduran itundu zen puntuetako bat. Gobernuak ez du konpromiso hori bete.

Kongresuko lehengo eguneko espektakulua lotsagarria da. Sanchezen poza, txiripa hutsez lortutako garaipen pirriko batengatik txaloka, patetikoa da. PPko diputatua, botoia sakatzen ez dakiena, zer arraio ari da Diputatuen Kongresuan? Politika eta politikariekiko arbuioa ez da gaurkoa. Halako espektakuluek arbuio hori areagotu baino ez dute egiten. Ez da erraza kalkulatzeko joan den egunean VOXek zenbat boto irabaziko zuen.

Ezkerreko alderdi batek langileen alde egin dezakeen guztiak UPN edo Ciudadanos bezalako alderdi baten oniritzia badauka, ezin liteke imajinatu abstentzioaren aldeko kanpaina eraginkorragorik.

UPNri beste legegintzaldi bat boterea ukitu gabe oso luze egingo zitzaizola askok uste genuen. Harrigarria, izatekotan, zera da: beren barneko tira-birak zein ongi ezkutatu dituzten, eta barneko tirabira horiek noiz eta nola lurmendu diren.

Eskandalua hain izan da handia, uste izatekoa dela ondorio sakonak ekarri-

ko dituela, astebetean konpontzen ez direnetakoak. Eskandaluak eskuinaren barne-berrantolaketa berri bat ekarriko du, tartean zatiketak eta jaka-aldaketak daudela? Iruñeko Udalarari eragingo dio? Nafarroako eliteek ez dute inoiz arazorik eduki PPrekin bat egitea komeni izan zaienean; baina ez dute PPren siglen pean agertzea gehiegi maite izan, ezta ere. Orduan, zein izan liteke alternatiba? VOX? Gogorra dirudi hori imajinatzea, baina gauzak ongi egingo balituzte –pertsonek ezagun eta herrikoi bat beren lerroetara bildu, nafartasun espainiarren gorazarrea, diskurtsoa pixka bat moderatu...–, ni ez nintzateke nire auzokoez gehiegi fio izango.

UPNk PSNrekin dituen loturak ez eteteke erakusten duen gogo bizia, PSNek UPNrekin dituenak ez eteteke erakusten duenarekin baino ezin da konparatu.

Nazario Karrikiri Ibarregarai Iruñean jaio zen, 1805. urtean, baina batez ere Madrilén ibili zen politika eta negozioak egiten. Zezenketarako ganadutegi ospetsua sortu zuen, Karrikiri famatua. Askok geroago, izen bereko euskara taldea eduki dugu. Berriki, koronabirusaren zepa bati, “autoktonoa” nonbait, izen hori paratu diote. Edozertarakoa baita, antza, eta zergatik ez jarri izen hori traizioa egiteko manera berriari.

Bitartean, Estatuak beretzat hartu ditu “banku txarra”-ren (Sare) galerak. Baina dagoeneko inor ez da horretaz gogoratzen. ●

Bi



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Otsailean urte bi bete dira Zaldibarko abortegia amildu zela. Martxoan pandemiaren bigarren urteurrena dator, bi hilabetez etxean geratu ginenekoa. Katastrofe bi. Bigarrenak lehenengoa estali zuen, baina Eitzagako hondamendiaren gestioak erakutsi zizun izurritea zelán kudeatuko zen.

Hondakindegia behargin bi, Alberto Sololuz eta Joaquín Beltrán, eroan zituen. Beltránek gorpua ez zuten topatu. Zaborra ere bertan geratu da. Eitzagako biztanleak abandonatuta daude hondakinen ondoan. Inguruan bizi garen guztiok segitzen dugu jakin barik zer ar-

nastu genuen, zer dugun alboan lurperatuta, zer daukagun guztiok autobideari itsatsita (jausitakoa bertan dago-eta).

Pandemian segitzen dugu, eta kudeaketa 2020ko otsailean zabortegian egin zena bezain kaotiko eta ulertezina da. Herritarrok, babes barik, noraezean askotan, informazio nahasgarria jasotzen gabiltza urte biotan.

Gestore bikainak ei ziren gobernuakide biak. Biek ala biek erakutsi digute kontu biak txarto kudeatu dituztela; are okerragoa, egindako hanka-sartzeetatik ez dutela ikasi, eta ikasi ere ez dutela egin gura.

Bi larregi. ●